

Oiongo udala

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga kobratzeko eta ordainketa aldia jakinarazteko iragarkia. 2022eko ekitaldia.

Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren aurtengo ordainagiriak ordaintzeko moduan egongo dira, borondatezko epean, 2022eko azaroaren 7tik 2023ko urtarrilaren 3ra bitarteko egun baliodunetan, bi egun horiek barne.

B) Betearazte aldia: 2023ko urtarrilaren 8tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaraguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ordaintzeko tokia eta modua:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontua aldatu ez badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2022eko azaroaren 17an kobratuko zaie.

Helbideratu gabeko ordainketak: Ordainketa helbideratuta ez duten pertsonak udal bulegoetan eska dezakete ordainketa banku kontuan helbideratzea; diru sarrera egin dezakete Kutxabank finantza erakundearen udalak duen bilketarako kontuan, edo Udalaren diruzaintzan egin dezakete ordainketa.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldaren barruan dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko eginkizuna, bat etorritik honako hauek xedatutakoarekin: Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 98.3 artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko Zergabilketaren Arautegi Orokorra onesten duen Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren 119. artikulua.

Aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinarazten diren zorrak izanik, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Alkatetzari, ordainketa egiteko borondatezko epean edo aldi hori amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

Iragarkiaren erreferentzia alfanumerikoa: Bo221007B.

Oion, 2022eko urriaren 7a
Alkatea, EDUARDO TERROBA CABEZÓN